

Aiako Udaletzeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: Nekane Arrizabalaga

ZINEGOTZIAK :

Arkaitz Iruretagoiena Lertxundi	Iñigo Etxabe Azkue
Miriam Sarasola Eizmendi	Estibaliz Lizarreta Merino
Aharaa Zuloaga Mintegui	Iñaki Telleria Astigarraga
Aitor Arregi Eizagirre	Hodeiza Sallen Molinero
Gontzal Alday Salaverria, eta	Irati Eizagirre Aguirre

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2019ko uztailaren 30ean, eginiko udalbatzarren akta , ontzat eman da aho batez.

2.-“Kreditu gehigarri bidezko kreditu aldaketaren espedientea

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman du Alkateak, kreditu gehigarrien modalitatekoa. Irailaren 30ean Kontu Orokorretako batzorde bereziak aldeko eritzia eman ondoren.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Alkateak egin nahi diren 2 obren eta finanziaio 2 iturrien azalpena egin du.

Aldayk EH-Bilduren posizioa, abstentzioa izango dela aurreratu du, nahiz eta ados egon egin nahi diren obrekin, hori izan delako taldeak erabakitakoa. Jakinda, noski, abstentzioak aurrera egitea bideratzen duela, ez duela ostoputzen proposatutako asmoak.

Bozketak egin eta aldeko 6 boturekin – 5 abstentzio- ,beraz legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK	438.630,27
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		438.630,27

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
7 (SARR ERAK)	DIRULAGUNTZAK	26.450,29
8 (SARR ERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	412.179,98
FINANTZAKETA GUZTIRA		438.630,27

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

3.- Eskari-galderak

Ez da izan ez eskari ezta galderik ere.

Bilera, 19,55ean bukatu da , eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, Idazkariak hau ematen dut,

Aian 2019eko urriaren 2an.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK